

## PRIBATUTASUN POLITIKA

Ohar honen bidez, Arabako Foru Aldundiak datu pertsonalak babesteko bere politikaren berri eman nahi die Enplegu Publikoaren Ataria erabiltzen duten herritarrei, beraiek askatasunez eta beren borondatez erabaki dezaten Arabako Foru Aldundiari beren datu pertsonalak eman nahi dizkieten, atari honen bitartez erakunde horrek eskaintzen dituen zerbitzuetakoren bat harpidetzean edo alta ematean eskatzen zaizkienean edo horren ondorioz lor daitezkeenean.

Arabako Foru Aldundiak politika hau aldatzeko eskubidea gordetzen du, une bakoitzean indarrean diren lege edo jurisprudentzia berritasunetara moldatzeko. Holakoetan, Arabako Foru Aldundiak webgune honetan iragarriko ditu sartutako aldakuntzak, berauek praktikan jarri baino lehenago, eta arrazoizko denbora-tarte bat utziz.

Jasotako datu pertsonalak modu automatizatuan landuko dira eta Arabako Foru Aldundiak sortutako fitxategi automatizatueta sartuko dira, bera horien titularra eta arduraduna izanik.

Helburu horrekin, Arabako Foru Aldundiak baliabide tekniko egokiak eskuratuko dizkie herritarrei, hauek, aurretiaz, Datuak Babesteko Politikaren inguruko ohar honetarako sarbidea izan dezaten.

Webgune honetan agertzen diren datu pertsonalen bilketa eta lanketa automatizatuaren helburu nagusia, herritarrek parte hartzen duten hautaketa prozesuetan hautagaitzaren egoerari buruzko informazioa mantentzea da.

Gainera, helburu hauetarako erabiliko da: herritarrek harpidetu edo alta eman nahi duten zerbitzuak kudeatu, administratu, eman, zabalagotu eta hobetzea, edo zerbitzu horiek herritarren nahi eta gustuetara moldatzea, herritarrek zerbitzu horiek erabiltzeari buruz ikertzea, zerbitzu horiekin loturiko zerbitzu berriak diseinatzea, zerbitzuen eguneratzeak bidaltzea, Arabako Foru Aldundiak gaur egun eta etorkizunean eskainitako produktu eta zerbitzuen inguruko informazio tekniko, operatibo eta komertziala ohizko bideetatik eta bide elektroniketatik bidaltzea.

Arabako Foru Aldundiak, datu pertsonalak babesteko legez eskatutako segurtasun mailak hartu ditu eta bere esku dituen bide eta neurri tekniko guztiak ipini ditu, berari eskuratzen dizkieten datu pertsonal guztien galera, erabilera okerra, bestelakotzea, baimenik gabeko sarbidea eta lapurreta galarazteko.



Horren berri emango zaie behar bezala herritarrei, datu pertsonalak biltzeko formularioetan.

Herritarrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kantzelatze eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete honako helbide honetara etorriz: Erregistro Orokorraren Bulegoak, Probintzia Plaza z/g 01001 Vitoria-Gasteiz (Araba); baita ere, [consultasofertasempleodfa@araba.eus](mailto:consultasofertasempleodfa@araba.eus) posta elektronikoko helbidean.